

MISIOA

Merkataritza eta Turismo Sailburuordetzaren misioa da Euskadin jarduera ekonomikoa eta enplegua sortu eta mantentzea, eta horretarako, turismo eta merkataritza-jarduerak sustatzea, indartzea eta arautzea, sektore horien hobekuntza eta profesionalizazioa erraztuko duten politika publikoak formulatuz, eta herritarren bizi kalitatea ere hobetzea, horretarako jarritako baliabideak efikaziaz eta eraginkortasunez kudeatuz.

IKUSPENA

Merkataritza eta Turismo Sailburuordetzak lortu nahi du besteek lider gisa onartzea, Euskadin, turismoaren eta merkataritzaren sektoreak modernizatu, profesionalizatu, berritu eta iraunkor bihurtzeko prozesuan.

Egoeraren eta egituraren eraginez, merkataritza-banaketa tentsiopean dago. Honako hauek dira tentsio horiek sorrarazten dituzten arrazoi nagusiak:

- Bizi dugun krisialdi ekonomikoa.
- Eskariaren beherakada handia.
- Finantziazio-lerroen eskasia.
- Merkataritza-operadore handien kontzentrazioa.
- Aldaketa teknologikoak.
- Merkaturatze-kanal berriak.
- Kontsumitzaileen jokabide-ildoetan izandako aldaketak.

Horrek guztiak egoera berrietara etengabe berregokitzera behartzen du sektorea, baita kudeaketarekin loturiko alderdi guztietan enpresen posizionamendua birdefinitu behar izatera ere, haien egitura merkatuen dimentsio berrira egokitzeko.

AHULEZIAK

- Merkataritzaren zatikatze handia
- Asoziazionismo eta integrazio maila baxua
- Enpresari behar baino garrantzi txikiagoa ematea
- Prestakuntza-maila urria
- Teknologizazio eskasa
- Marketinean eta publizitatean inbertsio txikia
- Enpresa-kudeaketa
- Malgutasun txikiko ordutegiak

MEHATXUAK

- Merkaturatze-kanal berriak
- Biztanleriaren zahartzea
- Aldaketa demografikoak
- Belaunaldi-txandaketarik ez izatea
- Lehia handitzea
- Negoziatio-ahal baxua
- Merkatuen globalizazioa

INDARGUNEAK

- Kokapen ezin hobeak
- Produktuetan espezializazio handia
- Zorpetze-maila baxua
- Bezeroen leialkuntza-maila ona
- Tratu pertsonalizatua, bezeroak ezagutzea
- Sektorean ibilbide luzea duten enpresaburuak

AUKERAK

- Kanal berriak izatea eskura
- Eskaintza turistikoaz baliatzeko aukera
- Merkataritza-hirigintzaz baliatzeko aukera
- Merkataritza uztartzeko hitzarmenak
- Merkatuen mikrosegmentazioa
- Merkatu-hobi berriak